

Donostia, 2016ko urriaren 17a

## EUROPAR BATASUNAREN ETA AURREKONTUA EGONKORTZEKO APIRILAREN 27KO 2/2012 LEGEAREN ESKAEREN ONDORIOZKO ZORROZTASUN POLITIKEI AURKA EGITEKO MOZIO ARRUNTA

Amaia Martin Garin Irabazi Donostia Taldearen bozeramaileak, Udalbatzaren Erregelamendu Organikoaren indarreko 98. artikulua babesean, Europar Batasunaren eta aurrekontu egonkortzeari eta finantza iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege organikoaren eskaeren ondoriozko zorroztasun politiken aurka egiteko ondorengo MOZIO ARRUNTA Udalbatzan aztertzei aurkeztu du, zorroztasun politikek herritarrengan dituzten ondorio negatiboak aurre egiteko toki korporazioen beharrezko bat egitea lortzeko.

### JUSTIFIKAZIOA

Aurrekontu egonkortasuna bermatzeko Europar Batasunak egindako eskaerak, 2011ko irailean Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua erreforma ekarri zuen. Bertan, defizit publikoa mugatzen duen eta zorraren ordainketa lehenesten duen arau fiskal bat ezarri zen. Aurrekontu egonkortzeari eta finantza iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak erreferendumik gabe egin zen konstituzioaren aldaketa honetan bildutako printzipioak garatu zituen eta, hainbat arau fiskalen bitartez, finantza egonkortasuneko printzipio konbentzionalak ezarri zituen. Espainiako administrazio publikoek arau horiek errespetatu behar dituzte euren finantzak onbideratzeko helburuarekin. Gizarte Segurantzaren kasu zehatzean, aurrekontuaren superabit edo oreka egoera gorde behar den arren, salbuespen bezala egiturazko defizitean erori ahal izango da, Gizarte Segurantzaren Erreserba Funtzaren araudian aurreikusitako helburuen eta baldintzen arabera. Kasu honetan, administrazio zentralarentzako onartutako egiturazko defizit maximoa Gizarte Segurantzako defizitaren zenbateko baliokidean murriztuko da.

Hori guztia kontuan hartuta, hauek dira urrezko hiru arau fiskalak: defizit publikoaren muga ez gaintzea, zor muga ez gaintzea eta Gastu Araudia errespetatzea. Azken arau hori Legearen elementu zitalenetako bat da; izan ere, bertan adierazitakoaren arabera, administrazio bakar batek ere ezingo du bere gastu publikoa Barne Produktu Gordinentzako (BPGd) kalkulaturako hazkuntza gaintu, defizit helburua bete arren. Adibidez, estatu mailan BPGd % 2 izatea aurreikusi bada, Estatuan, Autonomia Erkidego batean edo Udal batean gastuaren gehikuntzak ezingo du % 2 gaintu. Horrek egoera zitalak eragiten ditu, administrazioak goitik behera baldintzatzen dituelako eta gizarte politikak abiarazteko ahalmena mugatzen duelako. Hala, superabita duten udalen gasturako ahalmena eta herritarrentzako behar diren inbertsio sozialak egiteko ahalmena erabat hertsatzen da. Gainera, Lege honetan finkatutakoaren arabera, arauetakoren bat urratzen den unean urratu duen administrazioak Plan Ekonomiko eta Finantzario (PEF)

bat egin beharko du; hau da, ondorengo ekitaldietako sarrerak eta gastuak aldatzeko konpromisoa hartu beharko du, horrela, zerga agindu konbentzionalak berriro bete ahal izateko.

Tokiko finantziariozko gaur egungo diseinuaren eta gaur egungo aurrekontu arauen helburu ezkutua hauxe da: esparru publikoaren tamaina murriztea, udalak itoz eta herritarren ongizatean hobekuntzak eragotziz. Eta hori ezin dugu onartu, toki erakundeak gizarte politikaren –definizioz herritarrengandik hurbilen dagoena– zati handi baten arduradunak direlako eta zerga arloan eurei eskatu zaielako euste ahalegin handiena. Eta horrek oinarrizko gizarte politikan izan du eragina. Iaz Autonomia Erkidegoen defizitak 16.000 milioi euroak gainditu zituen eta Administrazio Zentralarenak 25.000 milioi euroak. Udalek, berriz, zero defizitaren helburua ondo betetzeaz gain, laugarren urtez jarraian, ia 5.000 milioi euroko superabita izan zuten.

Horren ildotik, Donostiako Udalak ere betetzen ditu aurrekontu egonkortasuneko legeak ezarritako hiru murrizketak. 2015eko kontuak 3,3 milioi euroko superabitarekin itxi zituen, eta kontuak saneatuak ditu. Izan ere, murrizketa horiengatik izango ez balitz, hiriaren beharrei aurre egin ahal izango lieke bere finantza egoera kaltetu gabe.

Aurrekontu murrizketako arau hauen bidetik zuzenean amildegira goaz, ekonomian kalte handiak eragiten dituztelako. Horrek, ekonomia deprimitzeaz eta gizarte gehiengoaren ongizatea izugarri murrizteaz gain, ez du finkatutako zerga helburuak betetzeko balio izan. Beraz, bide hori erabat okerra da. Egoera horren aurrean estrategia aldatu behar da, Estatuko Gobernuari honakoa eskatuz: alde batetik, Europako Batzordearekin defizit helburu berriak negoziatzea, eta, edozein kasutan, defizit horri jarduera ekonomikoa sustatuz eta diru sarrerak handituz aurre egin diezaion eta, inola ere ez, beharrezko gastu bat murriztuz. Erantzunak paradigma aldaketa batetik etorri behar du. Aldaketa horren bitartez estatu kideek euren defizit publikoak handitzeko aukera izan beharko lukete zuzeneko moneta finantzazioaren bidez (EBZak dirua sortu), eta finantzazio hori herritar ahulenen egoera ekonomikoa hobetzeko erabili beharko litzateke. Eta bestetik, Estatuko Gobernuari gastu araua murrizteko –superabita duten udalek, epe ertainera ekonomiak izango duen hazkuntza baino gehiago gastatzeko aukera izan dezaten– eta gastu muga –udalen aurrekontuak diseinatzeke Ogasun Ministerioak ezartzen du– finkatzen duen araua aldatzeko behar diren neurriak har ditzan eskatu behar zaio. Era horretan, gastu muga hori udalen etorkizuneko beharren arabera finkatuko litzateke, eta ez aurreko ekitaldiko aurrekontuaren arabera.

Udalek ez dute gastu muga ezabatzea eskatzen, gastu muga hori kalkulatzeko modua beste era batera interpretatzea baizik. Izan ere, euren ustez, gaur egungo sistemak Udalen inbertsio aukerak asko murrizten ditu, erreferentzi gastu gisa, aurrekontuan sartutakoa hartu beharrean, aurreko ekitaldian benetan burututako gastua hartzen duelako.



Hori guztia kontuan hartuta, hainbat estrategia bide bultzatu behar dira aurrekontu murrizketa horien gaineko legeriari aurre egiteko. Era horretan, administrazio publikoek gure herrialdeko herritarren ongizatea hobetzeko behar diren ekimenak abian jarri ahal izango dituzte. Xede hori lortzeko tokiko korporazioek elkarrekin jarduteko ahalmen handia dute, murrizketa politikei aurre egiteko eta haiek ahalbidetzen dituen lege esparrua aldatzeko behar den helburua sustatzeko.

Hori dela eta, Irabazi Donostiak honako hau aurkezten du:

### MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udaltzak Estatuko Gobernuari gastu araua malgutzeko behar diren neurriak har ditzan –udal honek (superabita dauka) epe ertainera ekonomiaren hazkuntzaren gaintik gastatu ahal izateko– eta gastu muga zehazten duen araudia alda dezan eskatzen dio. Era horretan, gastu muga udalen etorkizuneko beharrak kontuan hartuz finkatuko lirateke eta ez aurreko ekitaldiko aurrekontuan sartutakoaren arabera.

Sinatua: Amaia Martin Garin,  
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea